

Industria kimikoaren Ingeniaritzako ikasle bat naiz, eta 2015/2016 kurtsoko lehen lauhilekoa Odensen, Danimarkan egiteko aukera izan dut. Beste testuetan irakurri izango duzun bezala, nire lehen aholkua ere joatea da. Etzazu dudarik egin, hasieran zaila iruditu arren zeharo aldatuko zaituen esperientzia da.

Odense ez da oso hiri handia Danimarkako hirugarrena izanik ere, beraz, bertara moldatzea erraza egiten da. Horregatik eta horren laua izanik, jende guztia bizikletan ibiltzen da, nahiz eta euria edo elurra egin. Bizikleta bat beharrezkoa duzu hortaz bertan mugitzeko (autobusa nahiko garestia da gainera). Zortea baduzu batenbatek utziko dizu, eta bestela Facebooken talde bereziak daude horretarako (bizikleta dendetan ere bigarren eta hirugarren eskukoak saltzen dituzte).

Unibertsitatea bera eta instalazioak oso-oso ongi daude. Ingeniaritzako fakultatea azaro hontan bertan inauguratu dute, eta aurrekoa ez bezala, Main Campusaren ondoan dago. Hori bai, hasieran seguraski gela zenbakien sistema ulertzeko arazoak izango dituzu, baina behin orientatzea lortuta, zeinen ongi dagoen ikusiko duzu.

Irakaskuntza sistema zeharo desberdina da, eta azterketa gehienak ahozkoak dira. Baina ez beldurtu, ez da ematen duen bezain zaila, eta irakaslea eta aparteko azterketatzaile batekin egiten da, ebaluaketa ongi egiten dela ziurtatzeko. Desberdintasun handiena azterketan bilatzen dutena da. Begiratzen dutena ez da azterketarako ikasi den edo ez, baizik eta ea ikasgaiaren funtsa eta klasean egindakoa ulertu den.

Ikasle internazional asko hartzen dituen hiria da, bai unibertsitatean edota baita beste eskoletan ere. Batzuk Erasmus ikasleak izango dira eta lauhileko bat edo urte baterako egongo dira han, baina beste hainbeste master osoa edota gradua hasieratik han egitera joanak izango dira. Beraz, klasean beti izango duzu kanpoko ikasleren bat bertakoez gain. Izan ere, ez dira ikasle internazionalentzako klaseak izaten, baizik eta bertako jendearekin batera ematen dira, eta horrek hango jendea ere ezagutzeko aukera ematen du.

Daniarrei buruz esan beharra dago hasieran hotzak ematen dutela, baina beti laguntzeko prest daude. Berez ez dute ezezagunekin hitz egiteko joerarik, baina zu hurbildu ezkeror, orohar oso atseginak dira, eta etxean bezala sentiarazten zaituzte. Galderaren bat egin ezkeror ere ahal duten hoberen erantzungo dizute, eta eskerrak itxaron gabe, “egun ona izan dezazula” esanez joango dira.

Hizkuntzari buruz, egia da daniera oso zaila dela. Ahoskera konplikatu da, eta ez du ezagutzen ditugun beste hizkuntzekin inongo antzarik. Baina ez kezkatu, jendearen gehiengoak (ia denek) ingelesa hitz egiten dute, eta beraz ez duzu komunikatzeko inongo arazorik izango, ez eskolan, ez hortik kanpo ere (dendak, jatetxeak, ostatuak...). Hala ere, aukera baduzu beraien hizkuntza pixkat ikasten saiatzeko gomendatuko nizuke. Lærdansk izeneko eskolak doako ikastaroak eskaintzen ditu, eta ikasle

internazionalentzako kurtsoak ere izaten dituzte, baina hau dena eskolan bertan lehen egunetan azalduko dizute. Gainera, jende berria ezagutzeko aukera ematen du, eta daniarrek beraiek ere asko eskertzen dute pare bat hitz esaten entzuten bazaituzte.

Ez dakit zer gehiago kontatu dezakedan aurreko testuetan aipatu ez denik, eta seguraski zalantza zehatzagoak izango dituzu. Beraz, edozein galdera baduzu edo beste zerbait jakin nahi baduzu, Itziar edo Estiri aipatu, eta nerekin kontaktuan jarriko zaituzte.

Arritxu Muxika